

**BESTEAK****Gelako gurutzea.**

*Gelako gurutzatze* hauek ohikoak izan ziren garai batean, bai komentuetan, bai kapera partikularretan. Honako hau kolegio-elizaren kalonje baten oparia da, idulkiaren atzeko aldean grabatuta dagoen inskripzioaren arabera: “Regalado a la Yglesia por / Dn Vicente de Aberasturi / año de 1848” [“Vicente de Aberasturi jaunak 1848ko urtean elizari opari emana”]. Gurutzea zurezkoa da eta Kristo gurutziltzatuaren pinturaren euskarri. Kristo bizirik irudikatuta dago, hiru iltzez gurutziltzatua, eta arantzazko koroa eta garbitasun-oihala daramatza. Pintura-lan egokia da, Kristoren azterketa anatomiko ona egiten duena. XVII. mendearen erdialdean margotua izan zen, seguru asko. Idulkiak kaxa-forma du, aldeak alakatuta dituela, eta titakadura-lanetako motiboak eta aplikazio metalikoak ditu apaingarri. Piezak 1848ko urtea baino pixka bat lehenagokoa behar du izan, Aberasturi kalonjeak urte horretan eman baitzuen opari.

**Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:**

BARTOLOMÉ GARCÍA, Fernando R.; PARDO, Diana. “Restauración del conjunto de la sacristía de la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz”, en *La restauración en el siglo XXI. Función, estética e imagen*. Madrid, Árgoma Servicios Editoriales, 2009, pp. 103-112.

*Egilea: Anonimoa*

*Data: XVII. y XIX. mendeak*

*Teknika: Olioa oholean*

*Neurriak: 64 x 23 x 18 cm*

*Kokapena: Apaiztegia (Vitoria-Gasteiz)*



## Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García  
Argazkiak: Quintas argazkilariak

**araba álava**  
foru aldundia diputación foral

-k finantzatutako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



[arte.catedralvitoria.eus](http://arte.catedralvitoria.eus)

**Bisita gidatuak**

**Informazioa eta erreserbak**

Tel. 945 255135

[www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus)

**Bisitarien zentroa**

Santa María kantoia 3

01001 Vitoria-Gasteiz

